

**AMURRIOKO UDALAREN
GOBERNU-PLANA
2016-2019**



2016

Aurkibidea

Sarrera	1
Xedea.....	1
Ikuspegia	1
Jarduketak	1
Betetze-mailaren jarraipena	21

Sarrera

Legegintzaldiko Planaren xedea da gobernu-taldeak udalerraren ikuspegia garatu ahal izateko estrategikotzat jotzen dituen helburu nagusiak biltzea. Uste dugu PLAN hau funtsezkoa dela lehenetasunak identifikatzeko eta baliabideak esleitzeko, aldaketaz beteriko testuinguru honetan eta emaitzekiko konpromisoa erakusten duen kudeaketarantz jotzeko eskakizunak handiak diren garai hauetan. Alegia, gauzatu beharreko ekintzak zehaztu behar dira, etengabeko ebaluaziorako tresna gisa, eta ibilbide-orri bat ezarri behar da, honako hauek erdiesteko:

- Arlo bakoitzeko helburuak ezartzea eta lehenestea.
- Udal-aurrekontuak errazago egin ahal izatea; izan ere, bitartekoak lehendik lehenetsitako helburuen arabera arrazionalizatu eta banatzen direnean, aurrekontuak egiteko oinarritzko elementu bilakatzen dira.
- Bai herritarrek bai oposizioak helburuen betetze-maila neurtu ahal izatea.
- Kudeaketa publikoaren gardentasunaren eta parte-hartzearen ikur bihurtzea.

Gobernu-taldeak eginiko eta Alkatezak gidatutako dokumentu hau irekia da. Udalerrian sor daitezkeen eskari eta beharrian berrietara egokitzeko gai da.

Xedea

Xedek legegintzaldi honetan nagusiki egingo ditugun jarduerak zehazten ditu, baita emango ditugun zerbitzuen bidez ase nahi ditugun beharrak eta hori egiteko modua ere. Gobernu-talde honen xedek hiru ardatz nagusi hauek ditu: pertsonak jartzea udal-politikaren muinean, enplegua sortzea eta lurralde- eta ingurumen-politika iraunkor eta arduratsua sustatzea.

Ikuspegia

Ikuspegia da egungo gobernu-taldeak 2016-2019 legegintzaldian eduki nahi duen egoeraren deskribapena; alegia, jomuga. Gure ikuspegia da Amurriok kalitatezko zerbitzuak edukitzea, lanerako aukerak sortzea eta herri dinamiko eta erakargarria izatea bertan bizi direnentzat. Ingurumen- eta gizarte-eredu izaten jarraitu nahi dugu, eta, aldi berean, gure nortasun-ikurrak bultzatu, historikoak nahiz kulturalak.

Jarduketak

Jarraian jaso ditugu gobernu-taldeak gorago definitutako ikuspegia lortzeko gauzatuko dituen ekintzak. Guztira 91 ekintza dira, 20 ildo estrategikotan eta 3 ardatz estrategikotan banatuta.

Halaber, letra lodiz markatu ditugu hartutako konpromisoak lantzeko garaian lehentasunezkoztat jotzen ditugun ekintzak, bai horien ezaugarriengatik bai pertsona askori eragiten diotelako, edota egungo premiekin bat datozelako.

1.- PERTSONAK UDAL-POLITIKAREN MUINEAN JARTZEA

1.1.- Amurriolarrei irekia dagoen tokiko gobernua sustatzea

1.1.1.- Gardentasuna eta ebaluazioa udal-ekintzetan

Udal-gardentasuneratz aurrera egiten jarraitzea.

Besteak beste udalei eragiten dien Gardentasun Legean jasotako jarduketak bete ostean, ildo berean aurrera jarraitu nahi dugu; horretarako, ibilbide-orri bat ezarriko dugu eta udal-kudeaketaren gardentasuna sustatuko duten ekintzak gauzatuko ditugu etengabe.

UGIren indizeak betetzeko neurriak ezartzea.

“Nazioarteko Gardentasuna” gobernuz kanpoko erakunde unibertsalaren tresna da UGI (Udalen Gardentasun Indizea), eta udalek herritarren eta gizartearen aurrean duten gardentasun-maila neurtzeko erabiltzen da.

Aspalditik dago martxan sistema hau, eta aintzatespen handia dauka. 80 adierazle barne hartzen ditu, eta horien bidez 6 arlo hauek ebaluatzen ditu: Udalbatzari buruzko informazioa; herritarrekiko eta gizartearekiko harremana; ekonomia- eta finantza-gardentasuna; kontratazioen eta zerbitzuen gastuen gardentasuna; hirigintzako, herri-lanetako eta ingurumenaren arloko gardentasuna; eta, azkenik, Gardentasun Legeari dagozkion adierazleak.

Horrenbestez, pixkanaka sistema horretako adierazleak bete daitezela sustatuko dugu, udal-kudeaketaren gardentasuna are gehiago hobetzeko.

Gardentasunari buruzko webgune espezifiko bat sortzea.

Informazio publikoa errazago bilatzeko eta udal-kudeaketa sustatzeko asmoz, Gardentasun Atari bat jarriko da abian; bertan, herritarrek udal-kudeaketari buruzko informazio garrantzitsuena ikusi ahal izango dute, erraz eta modu intuitiboan.

Udal-ordezkariek kode etiko bat diseinatzea.

Gardentasun publikoa hobetzeko eta herritarrei kontuak aurkezteko asmoz, kode etiko bat diseinatuko da Udaleko talde politiko guztien artean. Kode hori erabiliko da gobernamentu onetik urruntzen diren jokabideak prebenitzeko eta hautetsien zuzentasun politikoa sendotzeko. Udaleko ordezkariek guztiak animatuko ditugu kodea sinatzera.

Egokitzapenak eta ekarpenak egin ahal izango zaizkio dokumentuari; hartara, etengabeko hobekuntza-prozesu bat sustatuko dugu, gero eta zorrotzagoa eta perfektionatuagoa.

Legegintzaldiko Gobernu Programa egitea eta ebaluatzea.

Legegintzaldiko Plana edo Gobernu Programa egingo dugu, gobernu-taldeak udalerraren ikuspegia garatu ahal izateko estrategikotzat jotzen dituen helburu nagusiak biltzeko asmoz. PLAN hau funtsezkoa da lehentasunak identifikatzeko eta baliabideak esleitzeko, aldaketaz beteriko testuinguru honetan eta emaitzekiko konpromisoa erakusten duen kudeaketarantz jotzeko eskakizunak handiak diren garai hauetan.

1.1.2.- Udalarekiko komunikazioa hobetzea

Komunikazio-zerbitzu bat sortzea.

Udaleko hainbat sailtako informazioa bateratu, kudeatu eta koordinatuko duen komunikazio-zerbitzu espezifikoa bat ezartzea; hori erabiliko da, besteak beste, tokiko komunikabideei edukiak helarazteko. Eguneroko gaiak/edukiak Udalaren webgunean argitaratzea, eguneratuta.

Sare sozialen bitartez komunikazioa sustatzea.

Herritarrei informazioa berehala eta zuzenean helarazteko mota horretako kanalak ezartzea eta erabiltzea, administrazioa gardena eta gertukoa izan dadin pertsonei zerbitzua emateko garaian. Erakunde eskuragarria eta herritarren interakzio-moduetara erraz moldatzen dena sustatzea.

Amurriotar berrientzako harrera-eskuliburu bat egitea.

Harrera-eskuliburu bat egitea, eta bertan jasotzea eta azaltzea udalerriko biztanle berrientzat bereziki interesgarriak izan daitezkeen kontuak; gai hauekin lotura dutenak, alegia: euskara, hondakinen kudeaketa, gizarte-zerbitzuak, kultura-zerbitzuak eta abar.

Eskuliburu horrez gain, egokia litzateke aurrez aurreko “ongietorri” saioak egitea herritar berrientzat.

1.2.- Bikaintasuna sustatzea kudeaketan

1.2.1.- Udal-kudeaketak egiteko online zerbitzuak ezartzea

Sinadura elektronikoaren erabilera zabaltzea.

Udalaren komunikazio-kanalak sinadura elektronikora egokituz joatea, administrazio-prozeduretan ICTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) erabiltzeko lehen urrats gisa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legeak) jasotzen duen moduan.

Administrazio-izapideak online egiteko aukera ematea.

Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, herritarrek Udalarekiko administrazio-izapideak kanal elektronikoaren bidez egin ahal izateko behar den softwarea ezar dadila sustatzea.

1.2.2.- Administrazio-izapideak erraztea eta arrazionalizatzea

Administrazio-izapideen eskuliburu bat egitea.

Badakigu gobernatzeko eta zerbitzuak emateko moduetan berrikuntzak etengabeak eta sistematikoak direla; horrenbestez, funtsezkoa iruditzen zaigu administrazio-prozedurak erraztea eta arrazionalizatzea, kudeaketa eraginkorragoa eta kalitate handiagokoa izan dadin ematen ditugun zerbitzuetan, eta zerbitzuok administrazio elektronikoan sartzeko betebeharrera egokitzea.

Administrazio-izapideen eskuliburuak Udalaren administrazio-prozedura guztiguztiei buruzko informazioa jasotzen du, ondo antolatuta eta modu sistematikoan.

1.3.- Herritarren parte-hartzea sendotzea

1.3.1.- Parte hartzeko joera indartzea

Hainbat auzotako elkarte zein batzarrekin eta Administrazio Batzarrekin lankidetzan sendotzen jarraitzea, eta, aldi berean, beste auzo batzuetako herritarrak antolatu daitezela eta parte har dezatela sustatzea, Udalarekin harremanetan jartzeko.

Amurrioko zazpi auzo-batzarrekin abian jarritako dinamikari eustea (Alkinar, San Jose, Larrabe, Goikolarra, Landako, Bañuetaibar eta San Roke), eta Amurrioko beste auzo batzuei nolabait antolatzen laguntzea (ez du zertan izan elkarte bezalako lege-figura baten bidez), beren behar nagusiak zuzenean

jakinarazteko eta Udalarekiko zuzeneko komunikazio-kanal bat ezartzeko, beste auzo batzuek daukaten bezalaxe.

Balioa ematea Amurrioko taldeei (gizarte-, kultura- nahiz kirol-arlokoak), eta, horretarako, ekarpen ekonomikoak egitea.

Egiten duten lanari balioa emateko eta beren jardueran laguntzeko asmoz, Amurriko hainbat elkarerentzako (gizarte-, kultura- eta kirol-arlokoak, besteak beste) diru-laguntzen sistema bat ezartzea; horretarako, nahitaez bete beharreko gutxieneko zenbait izapide ezarriko dira.

“Auzobegiralearen” figura indartzea.

Auzobegiralearen figura 2014an jarri zen abian, eta helburu gisa zuen auzoen eta Udalaren arteko lotailu gisa jardutea (ohiko kanalez gain). Aurrerago, haren funtzioa gehiago definitu zen: edozein herritarrek harengana jo zezakeen kexa, gertakari edo iradokizunen bat Udalera helarazteko.

Egiaztatu dugu gero eta jende gehiagok ezagutzen eta erabiltzen duela figura hori; dena den, uste dugu ez dutela herritar guztiek ezagutzen, eta, horregatik, herritarrentzako zerbitzu hori sustatu eta zabaldu nahi da.

Parte hartzeko modu berriak sustatzea.

Partaidetza-kanal berriak sustatzea eta abian jartzea, besteak beste, online kanalak. Horiez gain, Amurrioko partaidetza-sare egonkor bat jarriko da martxan, herritar guztiei irekia; horretarako, lehen Arnasa Foroa osatzen zuten kideen eta udal-elkarteen lankidetzak lortzen saiatuko gara.

1.4.- Zailtasun handienak dituztenak jartzea udal-politikaren muinean

1.4.1.- Egungo oinarrizko gizarte-zerbitzuak hobetzea eta zerbitzu berriak sustatzea

Pertsonen arreta emateko epeak laburtzea eta arreta-puntuko pribatutasuna bermatzea.

Zenbait neurri hartuko dira nabarmen murriztu dadin oinarrizko gizarte-zerbitzuekin egoteko hitzordua eskatzen denetik horiekin bildu arteko denbora; hartara, Amurrioko herritarrei ahalik eta lasterren lagundu ahal izango diegu.

Giza baliabide gehiago jartzea, kudeaketaren epeak eta eraginkortasuna optimizatzeko.

Giza baliabide gehiago jarriko dira oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, egungo eskariari erantzuteko. Horrez gain, giza baliabideak modu eraginkorragoan antolatzeke lan egingo dugu, herritarrei erantzun hobe emate aldera.

Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea, egungo zerbitzuak hobetzeko.

Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aktiboan jarraituko dugu, eskaintzen diren oinarrizko gizarte-zerbitzuak hobetzeko, ahal den neurrian. Horretarako, Udalak antzematen diren beharrian berriak edo hobetu beharreko puntuak jakinaraziko ditu.

Beste eguneko landa-zentro bat sustatzea, egungo zentroko plazak areagotzeko.

Udalak beste eguneko zentro bat sor dadila sustatuko du, egungo eskaintza areagotzeko. Zentro hori Landazuri partzelan koka daiteke, herrigunean baitago eta bertara iristea erraza baita.

Erosketa- eta kontratazio-irizpide arduratsuak sartzeko kontratazio-pleguetan, alderdi sozialak eta berdintasunari lotuak barne hartzen dituztenak.

Erosketa- eta kontratazio-irizpide arduratsuak sar daitezela sustatuko da; horien artean egungo dira, besteak beste, gizarte-justizia, berdintasuna eta ekitatea sustatzen dituztenak. Horren bidez, administrazio hau eredu izatea nahi dugu.

Haurtxoak zaintzeko gela bat abian jartzea.

Kultur Etxean gela edo eremu bat jarriko da haurtxoak zaintzeko. Horren helburua da leku bat ematea beren haurtxoei jaten eman edo pixoihalak aldatzeko eremu pribatu eta lasai bat nahi dutenei.

Paziente kronikoei eta/edo iraupen luzekoei botikak ondo emateko laguntza-sistema bat sustatzea (blisterren sistema).

Udaleko Gizarte Zerbitzuen arloak laguntza eskatuko die herriko farmaziei eta Osasun Zentroari botikak ondo administratu ahal izateko laguntza-zerbitzu praktiko bat abian jartzeko, denen artean koordinatuta.

Garapenerako lankidetzaproiektuetan lan egiten duten erakundeei babesa ematea.

Diru-laguntzen bidez, babesa emango zaie garapenerako lankidetzaproiektuak gauzaten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeei. Horretarako, diru-laguntzen deialdi bat arautuko da, eta erakunde edo proiektuek diru-laguntza jaso ahal izateko bete behar dituzten irizpideak ezarriko dira.

1.5.- Kultura irekia eta askotarikoa sustatzea

1.5.1.- Diru-laguntza kulturalak emateko irizpide objektiboak ezartzea

Irizpide zenbakarri eta objektiboak ezartzea kulturaren arloko diru-laguntzak emateko.

Kultura-jarduketak babesteko erabilgarri dauden baliabideak optimizatze aldera, hainbat jardueretarako irizpide objektiboak ezarriko dira, Udalera iristen diren diru-laguntza eskaerak objektiboki eta eraginkortasunez baloratzeko.

1.5.2.- Ekipamenduak eta kultura-zerbitzuak hobetzea

Musika Eskolarentzako beste kokaleku batzuk aztertzea.

Ikusi dugu une honetan Musika Eskola dagoen eraikinak ez diela behar bezala erantzuten ikasleen beharrei, txikiegia baita. Horrenbestez, Udalak Musika Eskola lekualdatzeko beste aukera batzuk bilatzeko konpromisoa hartzen du. Aukeretako bat Matías Landaburu izan daiteke.

Elkarteekin lankidetzan aritzea, eremu publiko bat izan dezaten.

Ahalegina egingo da hala eskatzen duten elkarte guztiek biltzeko eta/edo beren jarduerak gauzatzeko lokal bat izango dutela bermatzeko.

Liburutegia amurriorengana gerturatzea, teknologia berrien bidez.

Herritarrek liburutegietako bitarteko digitalak erabili ahal izan ditzatela bermatzeko lan egitea (euskarri berriak ematea, kontzientziazio-kanpainak egitea etab.).

Aktiboki lan egitea Amurrioko arte-, dantza-, trikitixa- eta musika-eskolekin, kultura-programak egiteko.

Koordinazio- eta plangintza-lanak egingo dira lau eskolekin; hartara, kultura-programa oso bat antolatuko da, eta sinergiak eta amurriorentzako diziplina anitzeko emanaldiak sortuko dira.

1.5.3.- Amurrioko ondareari eta memoria historikoari balioa ematea

Aztarna elkartearekin lan egitea, gune etnografikoa dinamizatzeko.

Udalak Aztarna elkarte etnografikoarekin batera lan egingo du, gaur egun El Reforren dagoen gune edo museo etnografikoa antolatzeke, dinamizatzeko eta ezagutarazteke, museoa erakargarri bihurtze aldera.

Zenbait talderekin batera lan egitea, memoria historikoa berreskuratzeke.

Udalak Aztarna elkarte etnografikoarekin eta beste zenbait eragilerekin, esaterako Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleekin, lan egingo du, herriko memoria historikoa berreskuratzeke. Adibidez, Txibiarteko zenbait lubaki berreskuratuko dituzte.

Elexazar ingurunea lehengoratzeko lanekin jarraitzea.

Elexazar ingurunea lehengoratzeko lanak sustatuko dira; bertan, I. mendearen amaieraren eta II. mendearen amaieraren arteko aztarnategi erromatar bat dago.

1.5.4.- Amurrio Antzokia etengabe hobetzea

Programatutako emanaldien kalitateari eta kopuruari eustea.

Amurrio Antzokian programatzen diren emanaldien kopuruari eutsiko diogu, baita horien maila eta kalitateari ere.

Amurrio Antzokirako sarrerak online erosteko aukera ematea.

Amurrio Antzokiko emanaldietarako sarrerako online erosteko aukera sustatuko da, errazago erosi ahal izateko.

1.6.- Ohitura osasungarriak sustatzea

1.6.1.- Kirola sustatzea amurriarren artean

Kiroldegiaren kudeaketaren eraginkortasuna hobetzea, bai aurrekontuari dagokionez bai kirol-baliabideei dagokienez.

Eskaintza zabalduko da eta ahaleginak egingo dira instalazioaren erabiltzaileak areagotzeko. Horrez gain, biomasa-galdara bat instalatzea dago aurreikusita, eta padelean ibiltzeko kantxa bat jartzeko aukera aztertuko da.

Lehendik dauden kirol-ekipamenduak berrikustea eta behar berrietara egokitzea.

Instalazioen urteroko balorazioa egitea, baita hainbat azpiegitura eta elementu (saskiak, atak etab.) berritzeko plan bat ere. Horrez gain, El Reforreko kirol-instalazioak egokituko dira, eta errugbi-zelai bat jarriko da.

Eskola-kirola indartzea, bai kirolaren ikuspegitik bai hezkuntzaren ikuspegitik.

Kirolaren bidez garatzen diren zeharkako balioak sustatzea adingabeen artean, behar dituzten trebetasun sozial eta emozionalak eskura ditzaten.

Horretarako, adingabeen monitore/entrenatzaileei zuzendutako zenbait prestakuntza-jarduera egingo dira, beren ezagutzen eta entrenatzaile-jardueren osagarri izango diren beste alderdi batzuetarako gaitasunak eskura ditzaten, kirolek haragoko alderdiak ere landu ahal izateko.

1.6.2.- Osasuna eta horrekin loturiko instalazioak hobetzea

Osasun Zentro berriaren eraikitzen hasteko behar diren izapideekin jarraitzea.

Behar diren administrazio-eskakizunak modu eraginkorrean kudeatzea, proiektua gauzatzeko aurreikusitako epeak bete ahal izateko.

Eremuko gertakari patologiko ohikoenei buruzko informazioa biltzea eta sentsibilizazio-kanpainak egitea (adib.: adinekoak, gazteak, etab.).

Abiapuntutzat hartuta osasuna ez dela soilik gaixotasunik ez izatea, baizik eta ongizate fisiko, mental eta soziala edukitzea, Amurrioko eta inguruneko gaixotasun ohikoenei buruzko azterlan bat egingo da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren lankidetzarekin. Bertan lortutako emaitzak oinarri hartuta, publiko kaltetuenari zuzenduriko sentsibilizazio-kanpainak jarriko dira abian, patologia horiek prebenitu ahal izateko eta, aldi berean, horiek jasaten dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

1.7.- Hezkuntza-ingurune egokia sustatzea

1.7.1.- Hezkuntza-ekipamenduak hobetzen jarraitzea

Hezkuntza Sailarekin koordinatuta lan egiten jarraitzea, Lucas Rey, Zabaleko, Tanttaka eta Tipi-Tapa zentro publikoak hobetzeko eta optimizatzeko.

Zentro bakoitzaren beharren zerrenda eguneratu bat egingo da, eta bertan jasoko dira zuzendu beharreko gabeziak eta egin beharreko mantentze-lanak. Hartara, horiei erantzuna emango zaie pixkanaka.

1.7.2.- Gurasoei laguntza eta babesa ematea

Ikastetxeetako guraso-elkarteei laguntzen jarraitzea.

Guraso-elkarteekin harremanetan egoteko zuzeneko kanal bat irekiko da. Horrez gain, Udalak gurasoentzat interesgarria izan daitekeen informazioa helaraziko die eta elkarte horientzat erakargarriak izan daitezkeen ekimenak sustatuko ditu.

1.8.- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sendotzea

1.8.1.- Berdintasuna sustatzen duten programak gauzatzea

Amurrioko Berdintasunerako IV. Plana egitea

Egungo errealitatea abiapuntu duen eta azken urteotan egin den zeharkako lanaz baliatzen den Berdintasun Plan bat egitea, datozen urteetarako helburuak, ekintzak eta jarduketak-ereduak zehaztuko dituen.

Emakunde, Eudel eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, sentsibilizazio-kanpainak eta programa zehatzak sustatzeko.

Gizonen eta emakumeen artean dauden desberdinkeriak ezabatzea ahalbidetuko duten jarduketa espezifikoak egingo dira. Jarduketak esparru guztietan gauzatuko dira: hezkuntza, elkarateak, gazteak eta abar.

1.9.- Gazteria-arloko politika integrala sustatzea

1.9.1.- Gazteentzako ekintza eta programa berriak definitzea

Gazteria-arloko politikak garatzeko zerbitzu integrala martxan jartzea

Arlo horrekin lotura duten eragileekin lanean jardutea eta gazteria-arloko zerbitzu integral bat zehaztea, gazteak ardatz dituen politika egituratu eta egonkor bat jorrazteko, Amurrioko gazteen kolektiboaren beharrei erantzute aldera.

Ekintza integralak sustatzea, gazteria ohiko aisialdi guneetatik harago ere garatzeko.

Amurriok gazteentzat martxan jartzen dituen jarduerak ez dira soilik aisialdiaren esparrukoak izango. Horri dagokionez, eskaintza hori beste esparru batzuetako jarduketekin osatuko da, besteak beste kulturaren, lankidetzaren edo osasunaren arlokoekin.

Lonjak gazteen aisialdirako erabiltzeari buruzko ordenantza betetzen den aztertzea.

Gazteria, Jarduerak eta Udaltzaingoa udal-arloen lankidetzaren bitartez, eta Laudioko Suhiltzaileen Zerbitzuaren esku-hartzearekin, udal-ordenantzaren gazteen lonjei ezartzen zaizkien neurriak eta baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatuko da.

Ildo horretan, Amurrioko gazteen lonjen datu-basea eguneratuta izateko ahaleginak egingo dira; bertan, arduradunen harremanetarako datuak ere bilduko dira.

Gazteen aisialdirako lonjak dinamizatzeko eta informazioa emateko kanpainak

Modu egituratuan askotariko jarduerak egitea erabilerei eta jarduketa erraztaileei buruzko informazioa ezagutarazteko.

Ikasteko gunek bat bermatzea, batez ere azterketa-garaian.

Amurrioko ikasleek azterketak dituzten garaian, guztiek baldintza onetan ikasteko gunek bat dutela bermatuko da.

Garai horretan, une honetan xede horretarako ditugun bi guneeetako bat irekita egon dadin sustatuko da, eta bermatuko da Udalak zerbitzu hori ematea.

Gune bat sortzea udalerriko musika-taldeek entseatu dezaten

Baldintza bikainak dituzten gunek bermatzea, Amurrioko musika-taldeentzat, eta horien erabilera arautzea.

1.10.- Zahartze aktiboa sustatzea

1.10.1.- Adineko pertsonentzako ingurune atsegina sustatzea

Adineko pertsonen berriaz arduratuko den udal-arlo bat sortzea.

Adineko pertsonen kopuruak etengabe gora egiten duela ikusita, beharrezkoa da kolektibo horren beharrak aztertzea eta behar horiei erantzutea. Hori dela eta, parte-hartzearen bitartez sortuko den arlo horrek zahartze aktiboa sustatzeko jarduerak antolatuko ditu.

Adineko pertsonen etxeetan ke-detektagailuak instalatzen laguntzea, suteen berri emateko.

Udalak Laudioko Suhiltzaileen Zerbitzuari laguntza eskatuko dio hasierako balorazio bat egiteko; ondoren, laguntza-ildo bat irekiko da bakarrik bizi diren adineko pertsonen ke-detektagailuak instalatzen beren etxeetan.

Erretiratuen kluba erabiltzaileen beharretara egokitzea, eta kolektiboekin elkarlanean jarduerak gauzatzea.

Inbertsio txikiak egingo dira erretiratuen kluba egun dauden beharretara egokitzeko; halaber, askotariko jarduerak sustatuko dira kolektibo horrentzat, erretiratuen lokala jardueraz-zentro bidera dadin.

1.11.- Euskara normalizatzeko lanean jarraitzea

1.11.1.- Euskararen erabilera normalizatzeko programak eta foroak sustatzea

Amurriotarren hizkuntza-eskubideak bermatzea Udalarekin dituzten harremanetan.

Udalean euskararen erabilera sustatuko da. Halaber, herritarrekin harreman zuzena duten arloak identifikatuko dira, eta bertako langileak gaituko dira, zerbitzua euskaraz eskain dezatela bermatzeko.

Inguru ez-euskaldunetan hizkuntza normalizatzeko lan egitea.

Euskaldunak ez diren inguruneak identifikatzeko lanak egingo dira (esate baterako, kirola), eta ekintzak antolatuko dira ingurune horietan euskararen erabilera pixkanaka normalizatzeko.

Eskualdeko foroak koordinatzea eta foro horietan parte hartzea, hizkuntza normalizatzeko.

Udalak Euskara Kontseiluan parte hartuko du eta modu aktiboan koordinatuko da Kontseiluarekin udalen eta Kuadrillaren lan-mahaietan (eskualde-mailan) zein Arabako Foru Aldundiaren lan-mahaian, hizkuntzaren normalizazioaren arloan urrats koordinatuak emateko.

Amurriotarrei euskara ikasten laguntzeko bekei eustea eta beken sistema hobetzea.

Udalaren diru-laguntzei eutsiko zaie, euskara ikasten ari direnei laguntzeko; gainera, ahal den neurrian, xede horretara bideraturiko diru-kopurua areagotzen saiatuko gara.

1.12.- Pertsonak ardatz dituen zerga-sistema bat sustatzea

1.12.1.- Udal-zergak zatituta ordaintzeko aukera ematea

Zergen ordenantza egokitzea.

Egungo zergen ordenantza aldatuko da, ordainketa zatitua edo “nahierako ordainketa” ahalbidetzeko. Hala, herritarrei aukera ematen zaie udal-zergak hainbat modutan ordaintzeko.

Nahierako ordainketa-sistema bat ezartzea.

Udal-zergei buruzko ordenantza aldatu ondoren, Udalak beharrezko urratsak emango ditu ordainketa zatitua edo nahierako ordainketa ezartzeko.

1.12.2.- Egungo hobariak berrikustea

Arlo bakoitzean dauden tasak berrikustea, hobariak homogeneizatze aldera.

Udalaren arlo bakoitzean dauden tasak berrikusiko dira, eta hobariak eskuratu ahal izateko irizpideak bateratzeko ahalegina egingo da. Arlo guztietan antzeko irizpideak izatea sustatuko da, esate baterako errentarik baxuenei hobariak ematea.

2.- EKINTZAILEAK ETA SEKTORE TRADIZIONALAK BABESTEA, ENPLEGUA SORTZEKO

2.1.- Udalerrian enplegua sortzea

2.1.1.- Tokiko enplegu-programak sustatzea

Urtero enplegu-planak egiten direla bermatzea

Enplegu-planak egingo dira, eta Udalak edo/eta Amurrio Bideanek eskura ditzaketan diru-laguntza ildoak bilatuko dira, tokiko enplegu-planak hobetzeko eta osatzeko.

Tokiko enplegu-planak sustatzea eta, beste erakunde batzuekin lankidetzan, eskualdeko enplegu-planak sustatzea.

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak enpleguaren arloan bultzatutako deialdi publikoen bitartez, Udalak eta Amurrio Bideanek tokiko enplegu-planak sustatuko dituzte.

Lan-poltsak egitea: 54 urtetik gorakoak, desgaitasunen bat duten pertsonak, lana lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak eta abar.

Kolektibo kalteberei edo lana lortzeko zailtasunik handienak dituztenei zuzenduriko lan-poltsak programatuko dira Udalak datozen urteetan izan ditzakeen beharrianak estaltzeko.

Amurrioko Udaleko administrarien lan-poltsa berritzea.

Une honetan ez dago horrelako poltsarik; hortaz, administrarien lan-poltsa bat sortuko da, Udalak arlo horretan izan ditzakeen beharriaz erantzun ahal izateko.

2.2.- Ekintzaileei aholkua ematea

2.2.1.- Amurrio Bideani balioa ematea

Enpresa-proiektu berritzaileak dinamizatzea.

Amurrio Bideanek diru-laguntzak eta aholkularitza eskainiko ditu enpresak sortzeko; era horretan, enpresa-proiektu berritzaileak dinamizatu eta ezagutzera emango ditu.

Tokiko industriarekin lankidetzan jardutea, hurbileko enplegua sortzeko.

Amurrio Bideanek komunikazio-kanal zuzena ezarriko du eskualdeko industria-sarearekin, dituzten beharrak edo erabilgarri zaizkien profilak ezagutzeko, behar horiei erantzuteko prestakuntza-ekintzak eskaintze aldera.

Autoenplegu-enpresak sortzen laguntzea.

Autoenplegu-enpresak sortzen lagunduko dugu; horretarako, ekipamenduak eta instalazioak dituzten lokalak alokatzen lagunduko dugu, ReforAmurrio Enpresaldean egiten diren prestakuntzari, bilerei edo aurkezpenei balioa gehitzeko.

2.3.- Merkataritza- eta ostalaritza-ingurunea hobetzea

2.3.1.- Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren sustatzea, baita pribatuen artekoa ere

Lankidetzaren sustatzea elkarteren bateko kide ez diren merkataritza eta ostalariekin, baita elkarteren bateko kide direnekin ere.

Amurrioko merkataritzari eta ostalaritzari balioa gehi diezaiaketen gaiak identifikatuko dira, eta elkarlanean aritzeko mekanismoak ezarriko dira; horiek elkarrekin zein elkarrekin gabeko jarduerak hartuko dituzte barne.

Kalitatezko tokiko merkataritzari eusteko ahaleginak egitea.

Merkatariekin hitzarmenak gauzatzea, tokiko merkataritzari eusteko eta hura hobetzeko.

Tokiko kontsumoa sustatzea; horretarako, lankidetzak bultzatuko da merkatarien, ostalarien eta kultura- zein kirol-elkarteen artean.

Udalak eta Amurrio Bideanek ahaleginak egingo dituzte kultura- eta kirol-elkarteei harreman-sarea osatzeko Amurrioko merkataritza eta ostalariekin, edozein jardura antolatzeak edo materiala erostea sortzen dituen irabaziak udalerrian era daitezela.

2.4.- Lehenengo sektorea babestea

2.4.1.- Ekoizleak babestea

Udal-baratzeen kopurua handitzea

Egun dauden itxaron-zerrendak murrizte aldera eta egungo eskaerari erantzun ahal izateko, amurriotarrentzako udal-baratze gehiago gaituko dira.

Tokiko ekoizleak babestea.

Tokiko ekoizleak babesteko politika berari eutsiko zaio, tokiko kontsumoa sustatzeko. Horretarako, ostiraletako merkaturak ekoizle horiei toki bat gordeko zaie; halaber, haien egoera hobetzen lagunduko duten beste ekimen batzuk ere sustatuko dira.

2.5.- Amurrio bisitariei hurbiltzea eta udalerriri balioa ematea

2.5.1.- Amurrio turismo-mapan jartzea

Udalerriko baliabide turistikoaren azterketa egitea.

Tokiko turismoaren sektoreko hainbat eragilarekin elkarlanean, Udalak udalerriko baliabide turistikoak identifikatuko ditu, baita gaur egun baliabide gisa identifikatuta ez daudenak ere, horiei balioa emateko eta Amurrioko turismo-eskaintza osoa eman ahal izateko.

Amurrioren turismo berdea, enologikoa eta kulturala sustatzea.

Aurreko jarduketara egin ondoren (baliabide turistikoak identifikatzea, alegia), udalerriko eskaintza turistikoa (naturala, enologikoa eta kulturala) ezagutarazteko materialak, kanpainak eta abar prestatuko dira.

3.- LURRALDE-POLITIKA ETA INGURUMEN-POLITIKA IRAUNKORRA ETA ARDURATSUA SUSTATZEA

3.1.- Egungo beharrezanean erantzuteko gai den Amurrio diseinatzea

3.1.1.- Hirigintza-plana berrikustea

Hirigintza-araudia lehenengo sektorearen beharrezanetara egokitzea.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko prozesuan, nekazaritzarako eta basogintzarako baliorik handiena duen lurzorua identifikatzea eta erabilera horietarako gordetzea.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzen jarraitzea, lurralde-garapen iraunkorragoa ezarri ahal izateko.

HAPOn faseak garatzea eta hori onesteko epeak eta betebeharrak ezartzea.

3.1.2.- Udalerriko irisgarritasuna eta bideragarritasuna hobetzea

Udalerriko irisgarritasun-plan bat egitea eta martxan jartzea.

Irisgarritasuna bermatzea eta sustatzea udalerriko hiri-inguruneetan, espazio publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta komunikazio-sistemetan.

Oinezkoen eta bizikletaz dabilzanean lehentasuna ematen dien mugikortasun segurua lortzea.

Hirigunean abiadura moteltzeko neurriak sustatzea. Segurtasun-kanpainak gauzatzea ikastetxeetan eta/edo beste kolektibo batzuetan.

Aparkaleku berriak bilatzea hirigunean.

Aparkaleku berrien bilaketa kudeatzea hirigunean.

Industrialdeetara oinez zein bizikletaz joateko irisgarritasuna hobetzea.

Industrialdeetara eta industria-jarduerak dituzten gunetara oinez zein bizikletaz iristeko bideak zabaltzea.

Zebra-bideetan segurtasuna bermatzea.

Udalerriko zebra-bide guztiak aztertzea eta oinezkoentzako segurtasun gutxi dutenetan neurri zuzentzaileak ezartzea.

Irisgarritasun-obrak egitea, arkitektura-oztoporik gabeko udalerrri bat lortzeko.

Irisgarritasun-azterketan ageri diren oztopoak desagerrarazteko planaren bitartez, lehenetasuna duten esku-hartzeak gauzatuko dira, epe labur, ertain eta luzean duten garrantziaren arabera.

Pertsonak erabiltzen dituzten landa-bideak baldintza onetan mantentzeko ahaleginak egitea.

Pertsonak biztanleria-gune batetik bestera joateko erabiltzen dituzten landa-bideak baldintza onetan mantentzeko lanak planifikatzea eta egitea, urtero.

3.2.- Beste etxebizitza-politika bat sustatzea

3.2.1.- Lehendik eraikita dagoena berreskuratzea.

Hutsik dauden etxebizitzak betetzeko programak ezagutaraztea.

Hutsik dauden etxebizitzak betetzeko programak, esate baterako, Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen Bizigune eta ASAP programak, ezagutaraztea. Programa horien berri emateko, Udalaren webgunea, *Hauxe da* aldizkaria, Udalaren sare sozialak eta abar erabiliko dira.

Halaber, unean-unean etxebizitza hutsak alokatzeak ekar ditzakeen hobarien berri ere emango da.

Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko obrak egiteko laguntzen berri ematea.

Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko obrak egiteko laguntzen berri emango da *Hauxe da* aldizkariaren eta Udalaren sare sozialen bitartez, besteak beste.

Halaber, 50 urte baino gehiago dituzten etxebizitzan jabeen Eraikinen Ikuskapen Teknikoari buruzko informazioa emango zaie.

3.3.- Modu orekatu eta iraunkorrean haztea

3.3.1.- Herritarrei bizimodu arduratsua eta iraunkorra izaten laguntzea, eta bizi-estilo hori sustatzea

Nerbioi ibaia suspertzeko ahaleginak egitea; horretarako, saneamendua hobetuko da, hodi biltzaileak eraikiko dira eta hondakin-uren araztegia martxan jarriko da.

Nerbioi ibaia suspertzeak lotura zuzena du hondakin-uren araztegia behar bezala ezartzearekin; hori egiteko ardura gobernu zentralak du. Hori dela eta, Udalak ahal duen guztia egingo du prozesua bizkortzeko eta ahal den neurrian araztegia martxan jartzeko epeak laburtzeko.

Hondakinak biltzeko zerbitzua hobetzea eta hondakin organikoen bilketa orokortzea.

Udalak Aiarako Kuadrillari eskuordetu dio hondakinak biltzeko eta kudeatzeko eskumena; hori dela eta, Udala, Kuadrillarekin elkarlanean, hondakinak biltzeko zerbitzua hobetzen saiatuko da, zerbitzua optimizatzen eta herritarrei zerbitzu eraginkorragoa eman ahal izateko.

Halaber, proba pilotua martxan jarri ondoren, hondakin organikoen bilketa udalerrira osora hedatzeko ahaleginak egingo dira.

Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea Amurriotik igarotzen diren Parke Linealaren zatiak egiteko.

Jarrera sustatzailea, proaktiboa eta kolaboratzailea izango dugu, bai Aldundiarekin bai Eusko Jaurlaritzarekin, oraindik egiteke dauden Parke Linealaren zatiak egiteko, Urduñara iritsi arte.

3.3.2.- Energia-eraginkortasuna hobetzea eta herritarrek klima-aldaketan duten eragin orokorra murriztea

“Compact of Mayors” iraunkortasunaren aldeko alkateen europar hitzarmenaren bildutako ekintzak martxan jartzea.

Udalak klima-aldaketari aurre egiteko sinatutako hitzarmenari (*Compact of Mayors* izenekoa) jarraikiz, hitzarmen horretan bildutako ekintzak planifikatu eta martxan jarriko dira, berotegi-efektua eragiten duten gasen igorpenak

murrizte aldera. Aldi berean, klima-aldaketara egokitzeko neurriak hartuko dira, eta egindako lanaren datuak urtero argitaratuko dira.

Biomasa-proiektuak sustatzea udal-instalazioetan.

Biomasa-proiektuak sustatuko dira udal-instalazioetan, besteak beste, kiroldegian; horren helburua da energia-eraginkortasuna hobetzea eta berotegi-efektua eragiten duten gasen igorpenak murriztea.

Tokiko Ekintza Planean (Tokiko Agenda 21) eta Paisaiaren Planean bildutako ekintzak martxan jartzea.

Hartutako konpromisoak jarraikiz, urratsak emango dira hala Amurrioko hirugarren Ekintza Planean (Tokiko Agenda 21 izenekoaren esparruan) nola Paisaiaren Ekintza Planean jasotako ekintzak ezartzeko.

3.3.3.- Saratxoko ingurabidearen proiektua berrikustea

Arabako Foru Aldundiari eskatzea beharrezko obrak egin ditzala egungo Saratxoko errepidearen arriskuak murrizteko

Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatuko dio hartutako konpromisoak betetzeko, egungo Saratxoko errepidea seguruagoa izan dadin.

Saratxoko ingurabidearen proiektua aldatzeko ahaleginak egitea, kalte gutxiago eragin ditzan.

Udalak jarrera proaktiboa hartuko du eta Saratxoko ingurabidearen proiektuak aurreikusten dituen bi lotune nagusien eragina murrizteko ahaleginak egingo ditu.

Betetze-mailaren jarraipena

2016-2019 Gobernu Planari behar bezalako jarraipena egiten zaiola bermatzeko, hemen bildu diren ekintzen betetze-mailaren jarraipena egingo da urtero. Jarraipen hori, halaber, urtero argitaratuko da Udalaren Gardentasun Atarian.

Asmoa da urteroko jarraipen hori urteko lehen hiruhilekoan egitea (aurreko urteko betetze-maila ebaluatuko da).